

30+10 mintegia, IMHk antolatuta

IMHK, Makina Erremintaren Institutuak, bosgarren 30+10 mintegia atondu du urriaren 21erako, bosgarren urtez. Enpresetan hizkuntza kudeaketa nola egin lantzeko jardunaldiak dira, eta Elgoibarren izango da goizeko jarduera. Hamabi hitzaldi prestatu dituzte interesen eta gustuen arabera partaideek aukeratu ditzaten. Enpresen emaitzak hobeak izateko intentziorik, hizkuntza kudeaketa bereziki lantzen duten hainbat esperientzia entzun ahal izango dira. Besteak beste ondokoak: CAFeko euskara ardura-

dun Joxe Begiristainek azalduko duena, Maquelsa/Konica Minolta-ko ordezkarien kontakizuna eta trenbideetako produktuen kalitate arduradun Igor Quincocesek azalpenak. Egitarau osoa helbide honetan: www.imh.es

Iñaki Uribe HABEko zuzendari

ALDIZKARI HAU ixterako karrajua.org webgunean irakurri genuen Eugenio Mujika HABEko zuzendariak kargua utzi zuela, edo utziarazi ziotela. Ondoren *El Correo* egunkariak adierazi zuen Mujikaren tokia hartuko zuela Iñaki Uribe Burgoa itzultzai-

leak. Uribe Villabonako (Gipuzkoa) PSE-EEko zinegotzia da. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, aldizkari hau itxi bitartean, ez zuen albiste honi buruzko ezer esan. HABEko zuzendari aldaketaren notizia egiazkoa balitz Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan gertatzen den hirugarren kargu aldaketa litzateke. Igor Calzadak Berrikuntzako zuzendari postua utzi zuen eta Ramon Etxezarretak sailburuordetza.

Bake Epaitegi guztietan euskaraz erregistratzeko aukera

DUELA GUTXI Usurbilgo (Gipuzkoa) hiru amaren kexa jaso genuen txoko honetan. Haur jaioberriak ezin zituzten euskaraz erregistratu beraien herrian. Espainiako Estatu Erregistroen Legeak 2005ean aitortu zuen jaiotzak, heriotzak eta ezkontzak euskaraz erregistratzeko eskubidea. Alabaina, praktikan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hamalau herri buruetan baino ezin zen halakorik egin. Dirudienez, 200dik gora Bake Epaitegiak sistema informatikoak ez zeuden prestatuta euskaraz erregistroak egiteko. Urtea bukatu baino lehen 2005ean aitortutako eskubidea gauzatzeko modua izango omen da.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Busturialdean lan eta bizi

Busturialdeko herritarrak mobilizatzen ari dira, hamarnaka alderdi politiko, sindikatu eta gizarte elkarte biltzen dituen plataforma sozio-politikoari eskerrak, Bizkaian dagoen Urdaibaiko eskualde eder horretan lan egin eta bizi ahal izateko irtenbideen alde. Bizkaiko Foru Aldundiak eta EAJK defendatzen duten Sukarrietako Gughenheim museoaren frankizia eraikitze erabakia gertuago dago, 200 milioi euro kostatu daiteke, eta mobilizazioak ugaltu egin dira horren aurrean. Joan den astean beste pauso bat eman zen Bizkaiko Batzar Nagusietan, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak ez duen ekimen hori babesten eta beste proiektu batzuk proposatzen dituen. Ez Bizkaiko Foru Aldundiak, ez EAJK, ezta Eusko Jaurlaritzak ere, ez dituzte kontsultatu euren proiektuak inguruko herritarrekin. Inposizio horiek salatzen dituzte mobilizazioek, herritarren erabakia errespetatzeko eskatuz. Azkeneko mobilizazioa joan den astean egin zen Gernikan, Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean.

Busturialdean lan eta bizi herri plataformak gogorarazi du jada badagoela hainbat eragileren artean adostutako eta 1998an dekretuz onartutako plan estrategikoa. Horren helburua da, garapen jasangarriarekin bat eginik, jarduera sozioekonomiko guztiei bultzada ematea. Urdaibaiko museo berrirako aurreikusitako 200 milioi euro horiek inbertsio produktibo eta sozialetara bideratzea eskatu dute. Busturialdeak 10.000 enplegu galdu ditu azken urtetan, lan postuak behar ditu sektore guztietan, eta ez Urdaibai turismo masiborako eskualde bihurtzea. Beren eskualdean lan egin eta bizi nahi dute. Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari gutxienez exigitu dakieke, behin betiko erabakia hartu aurretik, herritarrei galdetzea eta horien hitza errespetatzea. Aski da inposizioekin!

Juan Mari Arregi

BAHEA

[Maria Luisa Garcia Gurrutxaga](#) Eskola Kontseiluko buruak *El Diario Vascon* esanak: "Lehen Hezkuntzan, ama-hizkuntza gaztelania duen laugarren mailako ume batek, euskaraz ez du lehiakortasun linguistikorik. Baina zailtasun hori gainditu egiten da eta DBHko bigarren mailan jada ez dago arazo hori. Diagnosi-ebaluaketetan beste erkidego elebidunekin alderatu beharko da EAE, eta ez Errioxarekin (zerrendako lehen postuan dago), sistema ezberdinak baitira".